

Jaiotzen kopurua mantendu egin zen 2005eko bigarren hiruhilekoan

4.939 ume jaio ziren 2005eko bigarren hiruhilekoan eta erdia baino gehiago lehenengo seme-alabak izan ziren

EUSTATEk egindako Jaiotzen Estatistikako 2005eko bigarren hiruhilekoaren datuetan, 4.939 jaio jaso ziren, hots, iazko aldi berean izandakoen ia kopuru bera. Lurraldez lurralde, Araban 726 ume jaio ziren, Bizkaian 2.507, eta Gipuzkoan 1.706.

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, 2005eko bigarren hiruhilekoan jaioen erdiak baino gehiago, hots, 2.797 ume, lehenengo seme-alabak izan ziren; 1.850 ume (%37,5) aurretik beste bat zegoen familietara iritsi ziren; eta hirugarren eta ondorengo seme-alabak %5,9ra iritsi ziren. Bizkaian (%41,2), bigarren eta ondorengo seme-alaben kopurua Euskal AEko batez bestekoa (%43,4) baino txikiagoa izan zen, eta hori herrialde historiko horretan baino ez zen gertatu. Izan ere, Araban eta Gipuzkoan portzentaje hori gairiditu egin ziren, %45,5eko eta %45,7ko portzentajeak izan baitzituzten, hurrez hurren.

Lau jaiotzatik hirutan amak 30 urtetik gorakoak izan ziren


Jaiotzak amaren adinaren arabera banatuz gero, oraindik ere nagusi da 30-34 urteko amen taldea. Beraiek izan ziren, bigarren hiruhilekoan ere erditu zirenen ia erdiak. Ondoren, goragoko taldea kokatu zen, hau da, 35-39 urte artekoa (%26,3) eta 25-29ko taldea beherago geratu zen, erditzeen %18,2 ekarri baitzuen. Muturreko adinak dituzten taldeetan, 25 urtetik behera amatu zirenak %5,6 izan ziren, eta 40 urtez gorakoen taldeak, berriz, jaiotzen %3,7 besterik ez zuen ekarri.

Ezkontzaz kanpo jaiok guztizkoaren %21,9 hartu zuten, eta ia puntu bat igo ziren 2004ko bigarren hiruhilekoaren aldean. Gipuzkoa (%22,3) izan zen Euskal AE osoko kopurua gairiditu zuen lurralde bakarra. Arabako portzentajea Euskal AEkoaren berdina izan zen eta Bizkaikoa (%21,6) apur bat txikiagoa. Talde horren erditze-adina haurrak eduki zituzten amen multzo osoarena baino txikiagoa izan zen, ama ezkongabeen %18,2 14 eta 24 urte bitartekoak baitziren.

1. Taula: Bizirik jaioak Euskal AEn. Alderatze-aula

	2005eko 2. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2005eko 1. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2004ko 2. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	4.939	100,0	4.799	100,0	4.926	100,0
Araba	726	14,7	677	14,1	725	14,7
Bizkaia	2.507	50,8	2.471	51,5	2.552	51,8
Gipuzkoa	1.706	34,5	1.651	34,4	1.649	33,5
Amaren adinaren arabera						
< 25 urte	278	5,6	249	5,2	260	5,3
25 - 29 urte	898	18,2	868	18,1	914	18,6
30 - 34 urte	2.279	46,1	2.182	45,5	2.295	46,6
35 - 39 urte	1.300	26,3	1.303	27,2	1.263	25,6
>= 40 urte	184	3,7	197	4,1	194	3,9
Jaiotza-hurrenkera						
Lehenengoa	2.797	56,6	2.748	57,3	2.778	56,4
Bigarrena	1.850	37,5	1.731	36,1	1.831	37,2
Hirugarrena edo gehiago	292	5,9	320	6,7	317	6,4

1. grafikoa: Jaiotzen hilez hileko mugimendua



Iturria: EUSTAT

oinarria100 =b.b.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es
Harremanetarako pertsona: Martin Gonzalez Hernandez
Tlf:+34-945-01 75 49 Faxa:+34-945-01 75 01
Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es